

IRAGANAREN MORROI

Ostatuko gela nagusiko txoko bazter ilunean egunaren hondarretan atsedean hartuz eseri ohi den agureari erreparatu diot gaur lehenengoz.

Taberna bazterrean paratzen da egunero leiho aurrean zerbeza basoa lagun duela mailurrak ito nahian edo. Egurrezko leiho lurrinduak eta ostatuko argi eme eta ahulak agurearen bisai goibela tristeagotzen dute arima galdu baten itxura emanez.

Agurearen zimurrek noizbait irribarretsua izandako aurpegia erakusten dute baina, non galdu ote du zoriontasuna? herrian ez du inork inoiz far egiten ikusi.

Buruan daraman txapelak bere ile urdindua estaltzen du eta bizar luze, kizkur eta zurizkak den baino zaharragoa dela pentsatzera gonbidatzen du hari so dagoena.

Esku zaintsu eroriek arrantzale izandako agure baten aurrean nagoela xuxurlatu didate eta berarengana hurbildu naiz kontatzeko hainbat eta hainbat istorio eder izango dituelakoan.

- Arratsaldeon! Azken txalupa lehorreratu da! Bi lagun datoz eta ez dakarte metxa lehorrik!- egin diot diosala hitzaspertu bati hasera eman nahian.
- Itsaso zitalak bizitzatan kobratzen ditu urtero ematen dituen arrainak- erantzun dit berak begirada galdu bezain esanguratsu batez- Luisa eta Maite han izango

dira itsasoko arrain txikiekin jolasean lamien gisara...

Hemen dut beraien azken argazkia, ederrak dira biak...

Agureak beti bere altzoan izaten duen maleta zaharretik denborak horitutako argazki zahar bat erakutsi dit masailetik behera malko bat erortzen zaion bitartean.

Argazkia nire esku artean hartu dut. Ezin dut garbi ikusi baina bertan emakume baten eta haur baten gorputzak ikustea lortu dut azkenean. Kai aldeko txoko batean aterea zen argazki hura ikustean nire amonak txikia nintzela deskribatzen zizkidan pasartetako baten aurrean nagoela iruditu zait. "Sardina frexxkuek!" entzun dut bertan egongo banintz bezala, baina konturatu naiz argazkian agertzen diren pertsona haiek denboraren joanarekin desagertu zirela nire amonak egin zuen bezala. Ezin dut nahita ere garai hartako errealitatera itzuli nahiz eta ez den denbora asko igaro orduz geroztik.

- Ditxosozko egun hartatik aurrera ezin izan dut lorik egin, norbaitek esan zuen bizitza heriotzak betetzen duen hutsunea dela eta egunetik egunera nire hutsunean geroz eta handiagoa da. Herio bidai osoan izaten da gure ondoan baina hain ziur dago bere garaipenaz bizitza guztia hobari moduan uzten baitigu...

Agurea bere txokotik altxa eta ostatutik atera da bere pentsamenduetan murgildurik bakarrik egongo balitz bezala; nire presentzia nabaritu ere ez du egin.

Gau osoa igaro dut loak hartu ezinik, agurearen hitzak nituen buruan. Izara artean jira eta bueltaka ibili ondoren goizeko zazpi t´erdiak aldera ohetik jeiki eta kai aldera joan naiz itsasoko kresalak lasaitzen lagunduko didalakoan. Farora iritsi naizenean ordea, bezperan ezagutu agurea ikusi dut itsasora begira zeruertzean norbait ikusiko balu bezala. Ahopeka zerbait esaten ari dela iruditu zait eta bere ondora gerturatu naiz.

- Luisa maitea non zaude? Zergatik ez nauzu zurekin eta Maiterekin eramaten? Hain senar txarra al nintzen? Dagoeneko ahaztu al zarete nitaz?

“Kantauri itsaso, Kantauri itsaso eusko zangarren ekin, eraso; zure orruak ekaitz nastuak, arrantzalien azken orduak gotargi beroz nahi ditut jaso”... Gogoratzen al zara Maite? Egunero irakurtzen nizun Loramendiren olerki hau lokartu aurretik. Hainbeste maite zenuen itsasoa... Agureak ez nau ikusi eta atzera etxera bueltatu naiz gizarajoa bere bakardean utziz.

Etxera heldu naizenean ama sukaldean aurkitu dut eta agure hura nor den galdegin diot. Amak agure hura faroan bizi zela esan dit.

- Herriko zaharrek diotenez garai batean faroan bizi zen bere emazte eta alaba txikiarekin baina gau ilun batean ekaitz ikaragarri batek eraman omen zituen biak betiko agurea bakarrik eta erdi erotuta utziz. Orduz geroztik bakarrik bizi da faro ondoko etxola batean argazki

zaharrak lagun dituela. Badirudi iraganera itzuli nahi duela, etorkizunak arantza handiegiak dituela bera bezalako larrosa zimeldu batentzat.

Inork ez du berarekin hitzik egin egun zorigaiztoko haren ondoren; ez da bere inguruan gertatzen den ezertaz ohartzen.

Egun osoa igaro dut agurearen istorio tristea burutik kendu ezinik baina halako batean ohiu batek nire gogoeta hitsetatik atera nau.

- Gorpu bat agertu da hondartzan!-herriko haurrak txilioka ari dira.- Faroko zoroa da! Bere buruaz beste egin du!

Korrika joan naiz hondartzara eta han ikusi dut agurearen gorpua itsasoko harroken ondoan. Gorpuaren albora hurbildu naizenean agurearen maleta ikusi dut eta inor konturatzerako atzo ostatuan erakutsi argazkia sartu dut sakelean.

Etxera joan naizenean nire ohatzean etzan eta argazkiari so egitean zur eta lur geratu naiz... lehen bi gorputz zeuden tokian orain hiru ageri ziren. Argakiari gertuagotik begiratu eta agurea ikusi dut bere emazte eta alabaren ondoan irrifartsu. Orain ez dago bakarrik, Luisa eta Maite etorri dira azkenean bere bila.